

# BIRAKETA PRAGMATIKOA BIRAKETA LINGUISTIKOAN

**Fernando Garcia Murga**

Logika klasikoak mende honetako biraketa linguistikoan izandako eragina aipatuko dugu lan honetan. Dena den, logika klasikoan oinarritzen den semantikak dituen arazoak erakusten saiatuko gara. Problema hauek testuinguru, hiztunaren jakintza ez-linguistiko edota esaldien situazioek esanahian duten eraginetik datoz.

Beraz, hizkuntza naturalaren azterketa aurrera joan ahala, teoria pragmatikoaren sorreraren beharrean gaudela azaldu da. Adibidez, alde batetik Fricen teoriak duen aspektu garrantzitsuenetariko bat hiztunak esandako esaldiaren interpretazioa hizpidearen printzipio orokorren medio inferitza da da. Beste aldetik, Sperber eta Wilson-en "pertinentzi teoria", hizkuntzaren ulermenerako egiten den inferentzia, bi zutabetan oinarritzen da: logika klasikoan (murriztua izan arren) eta mekanismo psikologiko batean: "pertinentzi printzipioa".

Hala ere, aipaturiko bi zutabeak ez daude behar den bezala finkatuak, lan honetan azaltzen denez, arazo ugari planteatzen dituztelako. Beraz, gaur egun ez daude pragmatikak osatutako kontzeptuak zehatz-mehatz definiturik. Hori dela eta, pragmatika semantikak azaldu ezin dituen fenomeno "paperontzi" bihurtu da. Hau dela eta, aurrerantzean daukagun lana, arlo pragmatikoa antolatzea da.

---

## Sarrera

---

Filosofiak duen helbururik inportanteenetariko bat, gizakiaren jokabidearen oinarriak azaltzen saiatzea da. Seguraski, gizakien iharduerarik berezkoena hitz egitea da. Hizkuntzari esker, azkar eta esfortzu handirik gabe, mezu egin daitezke pentsamenduak, itxaropenak, hunkipenak, eta, mundu honetako, nahiz imajinatutako munduko aspektu berriak ikas daitezke.

Horrela, ez da batere harritzekoa, gizakiak jakinduria lortu nahi izan duenetik, hizkuntza gai garrantzitsu bat izatea. Hala eta guztiz ere, mende honen hasieratik, hizkuntz filosofiak izandako bultzakada dela eta, XX. mendeko filosofia deskribatzeko biraketa linguistiko izeneko aipatzeko beharra daukagu.

Biraketek, filosofi arloan, Kuhnen iraultza zientifikoen funtzio berbera betetzen dute; hau da, ikerlari-komunitateak onartzen duen paradigma baztertuz, ikerketak paradigma erabat berri batekin hastea. Beraz, filosofiak bira egiten du, filosofi komunitatean menperatutako sistemak jasatzen dituzten hipotesiak, metodoa eta filosofiaren definizioa ere, eztabaidan jartzen direnean.

Dena dela, biraketak ez dira ausaz gertatzen, irabazleak suertatzen direnak bederen. Biraketa batek arrakasta izan dezan, baldintza batzuk bete behar dira, menperatutako sistema ahultzea eta, aldiberean, paradigma berri bat osatzea inportanteenak direlarik.

Mende honetan arrakasta izandako biraketa linguistikoak, XIX. mendeko metafisikari gogor eraso zion. Metafisika bidegabeko filosofia dela jakinerazi ondoren, hizkuntzalaritzako marko bat proposatu zen; filosofia, metodo logiko baten bidez, hizkuntzaren azterketan datza, alegia.

Horrela, biraketa linguistiko izenekoaren ideia orokorrak aipatuko ditugu eta hizkuntza aztertzeke logikaren erabileraren zergatiak ikusiko ditugu. Aldiberean, biraketa horretatik ezin dela hizkuntza naturalaren funtzionamendua adierazi erakusten saiatuko gara. (Dena den, biraketa linguistikoa onartu zuten filosofoen helburua ez zen hizkuntza naturalaren funtzionamendua azaltzea; nola nahi ere, gure helburua hori izango balitz, aipatuko ditugun exenpluak kontutan hartu beharko genituzke).

Hori dela eta, beharrezkoa da, gure ustez, hizkuntzaren teoria pragmatikoa garatzea (ohartu behar dugu gaur egun ezin dugula esan teoria pragmatikoak ez dituenik logikatik harturiko kontzeptuak erabili behar). Hala ere, egungo teoria pragmatikoetan arazo ugari aurki ditzakegu. Beraz, etorkizunerantz begira, lan honek erakutsi nahi du, biraketa pragmatikoa beharrezkoa izanik, oraindik antolatu beharra daukagula.

---

## Biraketa linguistikoa

---

Wittgenstein-ek 1918 inguruan idatzitako *Tractatus* liburuko sarreran hitz hauek irakur daitezke:

"Liburu hau arazo filosofikoari buruzkoa da, eta arazo honen planteamendua, nere ustez, gure hizkuntz logikaren ulerpen ezan datzala erakusten du."

Hitz hauen arabera, ordurarte filosofoek izandako arazoak, hizkuntz nahasketak besterik ez ziren, biraketa linguistikoa gidatzen duten filosofoen ustez, aurreko filosofoek erabiltzen dituzten perpausak zentzugabekoak direlako. Adibidez:

- (1) Edozein substantziak, bere barneko errealitatea aipatzen duten determinazio eta barruko indarrak eduki behar ditu.

(Kant)

Ezin dugu esan (1) egia ala faltsua den, "substantzia", "barruko indarra" eta "barneko errealitatea" zer aipatzen duten ez bait dakigu.

Beraz, filosofian erabilitako perpaus gehienak ez dira, ez egia ez faltsuak, ez bait datoz bat errealitatearekin. Hau da, perpausa filosofikoek ez dute ezer esaten. Beraz, paradigma filosofiko berriak duen helburua ez da arazo filosofiko klasikoak konpontzea, disolbatzea baizik.

Beraz, hemendik aurrera, metafisika baztertuz, biraketa linguistikoa medio, filosofia, hizkuntzalaritzaren azterketa-lana izango da. Lan honetan Frege, Russell eta Wittgenstein izango ditugu besteak beste.

Aldeberean, kontutan hartu behar dugu logikak sekulako aurrerakada

jasan zuela XIX. mendean. Honela, ez da harrizkoa filosofo askok logikaren metodoa egokitzea hartzea.

Gogora dezagun logikak ondorioaren erlazioa azaldu behar duela, ez ordea gizabanakoak psikologikoki nola arrazoitzen duen. Beraz, teoria logikoari interesatzen zaiona enuntziatuen egiaren teoria eraikitzea da.

Teoria logiko batentzat baliogarria den bakarra, enuntziatuak dira: hau da, egia ala faltsuak diren perpausak. Honez gero, eta Wittgenstein-ek dioenaren arabera, hizkuntzari "zentzugabeko" perpausak debekatzea galdatu behar zaio. Honela bada, eta hizkuntz naturalaren gramatikak, begi bistan, "zentzugabeko" perpausak onartzen dituela kontutan hartuz, hizkuntza naturalak ez-zuzentzat hartuz amaitu zen.

Beraz, biraketa linguistikoa bultzatu zuten filosofoek, hizkuntza berri bat –edo hizkuntza naturalaren berreraiketa– hasi ziren eraikitzen, hizkuntza hobezinera iristeko. Helburu hau lortzeko, hizkuntz filosofo hauek logikaren estensionalitate printzipioa jarraitu zuten.

Printzipio honek dioenez, definitutako elementu bakunenetatik, adierazpen ondo formatu guztiak eraikitzen dira. Edo, alderantziz ikusita, edozein adierazpen zuzen, osatzen duten elementu bakunetan deskonposa daiteke.

Beraz, biraketa linguistikoz filosofoek eraiki nahi duten hizkuntza

–hizkuntza hobezina– hizkuntza formalak bezala, arauen multzo finito batean oinarrituko da.

Holako hizkuntz teoria gehienak, semantika definitzeko, erreferentziatzeko egi teoriak baliatzen dira:

- (2) "Liburua mahai gainean dago" egia da baldin eta bakarrik baldin liburua mahai gainean badago.

Hizkuntzaren elementu bakunek, munduaren objektuak aipatzen dituzte -zeintzuk ote ziren hizkuntzaren elementu bakunenak eta munduaren objektuak Wittgenstein-en kezkarik handienetarikoak ziren *Tractatus* idatzi ondoren.

Enuntziatuen esanahia egiaztapen-printzipioaren bidez finkatzen da, hau da, enuntziatuak ulertzen dira, egiak badira, kasua zein den dakigunean. Honela ailegatu gara semantikak duen ezaugarri garrantzitsu batera: edozein enuntziatuen esanahia, item lexiko eta egitura sintaktikoaren arteko erlazio sistematikoaz oinarritzen da.

Ikus ditzagun datozen adibideak:

- (3) Donostia Gasteiztik 110 kilometrorra dago.  
(4) Donostia Gasteiztik 111, 826 kilometrorra dago.  
(5) Donostia Gasteiztik 80 kilometrorra dago.

Alde batetik, auto baten barruan dagoen pertsona batek Gasteiz eta Donostiaren artean zenbat kilometro dauden galdetzen badigu, (3) erantzungo diogu, gutxi gorabehera

aipatutako distantzia errepide zuzenaren baita. Beste situazioetan, berriz, (4) edo (5) erantzunak zuzenagoak izango lirateke (3) baino. Beraz, (3), (4) eta (5) erantzunak egokitzat -egitza- har daitezke testuinguru desberdinen arabera.

Logika klasikoan oinarritzen den semantikak, arazoak izango ditu datozen adibideak azaltzeko:

- (6) Gaixorik, *gogoratzen naiz*, dago.  
(7) *Argiro*, ez zait batere gustatzen.  
(8) Joxek *ere* esamina gaingitu du.

Azpimarratuak dauden hitzek ez dute funtziorik jokatzen enuntziatuen egi balioa zehazteko. Hala eta guztiz ere, inportanteak dira perpausak ulertzeko.

Biraketa linguistikoa hasi zenetik, beste zenbait arazo gaingituzko beharra ere azaldu zen:

- (9) Frantziako erregea burusoila da.  
(10) Frantziako erregea ez da burusoila.  
(11) Frantziako erregea gaur bisitatu dut.  
(12) Frantziako erregea esistitu egiten da.

Hamabigarren enuntziatua faltsua bada, (9) enuntziatua ezin da egia izan. Orduan, balio biko logikaren arabera, (9) faltsua izango litzateke eta, aldiberean, (10)-ak egia izan beharko luke (exenplu hauek eztabaida luzea sortarazi zuten Russell eta Strawsonen artean).

Baliteke (9) nahiz (10), (12) faltsua izanez, egi balioa ez izatea, errealtatearekin ez baitatuz bat. Baina horrela bada, (11) faltsua dela

pentsatzen badugu ere, baliogabekoa izan beharko luke.

(9), (10) eta (11) enuntziatuek (12) auresuposatzen dute. Tradizionalki, auresuposizioa definitzeko erabilitako irizpidea hauxe izan da: "p" perpausa batek "q" auresuposatzen badu, orduan "p" nahiz "p"-ren ukazioak "q" baldintzatzen du (honek esan nahi du "q" egia izan behar dela "p" enuntziatuak egi balio klasiko bat izan dezan).

Perpausa batek auresuposatzen duena ez da esaten, hiztunak jakinda ematen duelako. Honek ez du esan nahi aurre suposizio guztiak egiak direnik, ezta auresuposizio guztiak, esaldia ahoskatu aurretik, hiztunak eta entzuleak ezagutzen dituztenik ere. Alde batetik, hiztuna nahastu egin daiteke eta, adibidez, Frantziako erregea esistitzen dela pentsa dezake. Beste aldetik, elkarrizketan "jausi eta lasterbide" izan daitezke. Auresuposizioaren funtzioa oso erabakiorra da, berari esker, entzulea elkarrizketan kokatzen delako.

Ikus ditzagun datozen adibideak:

(13) Jonek etxe bat dauka eta oso garestia da.

(14)? Jonen etxea oso garestia da eta Jonek etxe bat dauka.

(13) enuntziatuaren ahoskatzea egokia da; (14), berriz, ez, (13) eta (14) logikoki baliokideak izan arren. (14) erabat desegokia da, hizlariak aurre suposatuta dagoen zerbait esaten duelako (Jonek etxe bat daukala, alegia).

(15) Jon zalditik erori zen eta hanka apurtu zitzaion.

(16) Joni hanka apurtu zitzaion eta zalditik erori zen.

Kasu honetan, ikusi dugun aurreko adibidean bezala, (15) eta (16) logikoki baliokideak dira. Hala eta guztiz ere, hizkuntza naturaleko "eta" konjunkzioak denborazko jarraipena adierazten duenez gero, gertakizun desberdinak deskribatzen dute.

"Baina" konjuntzioak, berriz, beste zentzu bat emango luke:

(17) ? Jon zalditik erori zen, baina hanka apurtu zitzaion.

(18) Jon zalditik erori zen, baina ez zaitzaion hanka apurtu.

(17) enuntziatuaren ahoskatzea egokia ez dela dirudi, guk dakigunez, zalditik erortzen den norbaiti, askotan, hanka apurtzen bait zaio.

(15)-tik (17)-ra egi baldintza berberak izanez, enuntziatu logikoki baliokideak baditugu ere, esanahi desberdinak dituzte. Beraz, lehen mailako logika klasikoaren bitartez, ezin ditugu enuntziatu desegokiak bereiztu, ezta perpausen esanahi osoa harrapatu ere.

Enuntziatu bakunen auresuposizioak jakinda ere, auresuposizioen konportamendu "proiektiboa" zail xamarra da metodo logiko huts baten bitartez argitzeko.

Adi datorren egoeraz: hiztunak uste zuen Josune mormoia zela eta bazekien mormoi guztiek azpigona

jazten dutela. Egun batean, hiztuna Josunek azpigonarik ez zuela jazten konturatu zen. Orduan, hiztunak (19) esan zuen:

- (19) Josune mormoia bada, azpigona jazteari utzi dio.  
(20) Josunek azpigona jazten zuen.

(19) enuntziatuak ez du auresuposatzen Josunek azpigona jantzi zuenik, (19)-aren ondorioak, hori aurre suposatu arren. Jokabide hau azaltzeko, jakintza ez-linguistikoa kontutan hartu behar da. Guk "munduaz" dakigunari esker, (19) enuntziatuaren antezedentetik (Josune mormoia dela, alegia), ondorio dezakegu Josunek, mormoia izanik, azpigona jantzi zuela. Horregatik ondorioak auresuposatzen duena ezabatu egiten da, datorren adibidean bezala:

- (21) Korok seme-alabak baditu, Kororen seme-alaba guztiak azkarrak dira.  
(22) Korok seme-alabak ditu.

(Norbaitek pentsa dezake munduaz dakiguna premisa multzoan sartuz gero, sistema logikoa mantendu daitekeela. Baina orduan, sistema osoa trataezina bihurtuko litzateke ala premisa aukeratzeko mekanismo psikologiko bat gehitu beharko genuke, laster ikusiko dugunez).

Ikusi ditugun holako adibideen medioz, hizkuntzalaritzako aurre suposizio-fenomenoak oso garrantzi handia izan du pragmatika sortarazitako prozesuan.

---

## Biraketa pragmatikoa

---

Lehenengo hurbilketan, teoria pragmatikoez hizkuntzaren erabilera aztertzen dutela esan daiteke. Hizkuntza erabiltzen dutenek esaldien ulermena lortzen dute eraiketa baten bidez. Eraiketa hori ekiteko testuingurua behar beharrezko elementua izango da.

Daukagun egoera hau da: entzuleak esaldi bat ("p"), testuinguru baten barruan entzun duelarik, hiztunak ("q") mezua egitea nahi duela ulertzen du.

Edozein teoria pragmatikok "p" eta "q"-ren artean zer nolako lotura dagoen aztertu behar du. Dakiguna da loturak zuzena izan behar duela elkar ulertu nahi badugu.

Razionalitatea zehazteko, Grice-k hizpidearen printzipio orokorrak planteatu zituen, bere hizkuntz teoria pragmatikoa barne. Ikus dezagun adibide bat:

(23) E- Maddi Gasteizera ailegatu al da?

H- Ford Fiesta bat ikusi dut bere etxe ondoan. ("p")

[Bai, seguraski Maddi Gasteizera ailegatu dela ("q")]

H-ren erantzunak ez du, dirudenez, zer ikusirik E-k galdetu duenarekin. H-k duen hizkuntz jokabidea honela azaltzen du Grice-ren teoria pragmatikoa:

1. H-ek "p" esan du.
2. Ez dago arrazoirik suposatzeke

H-ek maximak edota kooperazio-printzipioa ez dela jarraitzen ari.

3. H-ek "q" pentsatu ezean, ez luke "p" esango.
4. H-ek badaki (eta badaki E-k dakiela H-ek dakiela) E-k suposatzen duela H-ek "q" pentsatzearen beharra duela.
5. H-ek ez du ezer egin E gauza izan ez dadin "q" pentsatzeko.
6. H-ek E-k "q" pentsatzea nahi du.
7. H-ek "q" inplikatu du.

("Inplikatu" Grice-k erabilitako "implicate" neologismoaren itzulpena da).

Grice-ren eskemak hutsune franko ditu eta honez gero, hizpidearen printzipioak eztabaidatzeko, literatura asko sortu da pragmatika arloan.

Dena dela, oraingoz interesatzen zaigun arazoa hauxe da: "p"-tik "q" nola inferitzen den. Grice-ren eskemaren hirugarren pausuan "q" sartzen da bapatean, nondik eratorri den jakin gabe.

Hala eta guztiz ere, Grice-ren eskeman, jadanik aipatutako bi ideia nabarmen aurki ditzakegu:

Alde batetik, hizkuntza erabiltzen dutenek, nola edo hala, ulermen-prozesuan parte hartu behar dute, esandako esaldia eta testuingurua bat egiteko. Baina honela bada, eta logikak ez duela prozesu psikologikorik aztertzen kontutan hartuz, hizkuntz fenomenoak ez dira logikan amaitzen.

Beste aldetik, berriz, hiztuna eta entzulearen hizkuntz jokabideak

razionala izan behar du elkar ulertzeko. Baina askotan, razionalitatea logikotzat hartzen da.

Honela, gaur egun inportantzia handiko teoria pragmatikoa, Sperber eta Wilson-en "pertinentzi teoria", hizkuntzaren ulermenerako egiten den "eraiketa" edo inferentzia, logika klasikoan oinarritzen da.

Lan honetan ez dugu "pertinentzi teoria" zehatz-mehatz aztertuko. Bideratzeko moduan, Sperber eta Wilson-ek honako hau uste dutela esan dezakegu: hizkuntzaren funtzio bakarra, informazioa besteenganatzea da eta giza ezagutzaren joera, ahal den informazio gehiena, ahal den kostu gutxien prozesuaren truke lortzea da.

Hizkuntza naturala azaltzeko baliogarria den edozein logika, bakarrik "forma logiko osoan" aplikatu daiteke; bestela, sistema inferentziala trataezina izango bait litzateke. Esaldi gehienek, berriz, forma oso hori ez dute. Adibidez,

(24) Hor ez zegoen.

Sperber eta Wilson-i jarraituz, forma logika osoa lortzeko prozesua horrelakoa izango litzateke:

(25) ----- hor ez zegoen (-----)

(26) Jon zineman ez zegoen (atzo).

(24) esaldiak ez du egi-baliorik, eta hizkuntza naturaleko esaldi gehienak, egi baliozko determinazio gabekoak dira. Hizkuntz dekodifikazio-prozesu baten bidez, esaldiak forma logiko

bihurtzen dira; forma honek dituen "hutsak" betetakoa, proposiziozko forma osoak izango ditugu.

Prozesu honetan zehar, hizkuntza erabiltzen dutenek, testuingurutik informazioa atera behar dute. Azken emaitzek, (26), egi baliozkoak izan behar dute.

Gizabanako batek duen proposiziozko forma osoaren multzoak, bere "enziklopedi jakintza" osatzen du. Ikusi dugun hizkuntz dekodifikazio-prozesu honen azken emaitza, proposiziozko forma osoa, esaldia ulertzeko inferentziaren premisa bat izango da. Beste premisak, gizabanakoak bere enziklopedi jakintzatik lortuko ditu.

Hizkuntzaren interpretazioa oso prozesu azkarra, ia berezkoa, da. Hau dela eta, gizabanakoak, enziklopedi osoa birpasatzeko premisa egokienak aukeratzeko, ez du denborarik izango. Beraz, automatikoki premisa egokienak aukeratzeko mekanismo psikologikoren bat definitu beharra daukagu.

Aipaturiko mekanismoak sistema logikoek duten errealitate psikologiko eza beteko luke. (Beraz, hizkuntzaren teoriak bi zutabetan oinarrituko lituzke: sistema logikoa gehi mekanismo psikologikoa). Horrelako mekanismoa Sperber eta Wilsonen "pertinentzi printzipioa" da.

Gogora dezagun pertinentzi printzipioak dioena: lor ezazu ahal den informazio gehiena, ahal den prozesamendu-kostu txikienaz.

Horrelako printzipio bat jarraitzen badugu, beti aukeratutako lehen premisa-multzoa pertinateena izango da, zeren, aukeratutako lehen premisak bazterten baditugu informazio gutxi ematen digutelako, hautatutako bigarren premisak ere ez bait dira pertinateenak izango, prozesuaren kostua, bi prozesu desberdin izan ditugunez gero, oso handia izango litzatekeelako. Honen ondorioz, pertinentzi printzipioa aplikaezina dela esan dezakegu, edota horrelako printzipioak ez duela ezer argitzen.

Beste aldetik, berriro prozesurako denbora gutxi dugulako, eta kalkulu logikoak amaigabekoak direnez gero, erregela logikoaren multzoa murriztu behar dugu, aplikazio muga-gabeko erregelak –konjunkzio eta disjunkzioaren sartze-erregelak adibidez– debekatzeko.

Murrizketa honek zenbait arazo sorterazten dizkigu. Garrantzitsuena hau da: konjunkzioaren sartze-erregela debekatzeko badugu, ezin izango dugu proposiziozko formak elkar konparatu, jakiteko, adibidez kontraesanen bat dagoen enziklopedi jakintzan.

Bestaldetik gizabanakoak daukan entziklopedi-jakintza ez osoa denez gero, eskuratzen duen informazio berriak, entziklopedia alda dezake. Hau dela eta, aztertzeko ari garen inferentziak, jokabide ez-monotonoa darrai. Beraz, gizabanakoak usteen multzoa etengabe berrikusi behar du.

Usteak berrikusteak, denbora eskas eta esfortzu handia behar dutenez,



arazo ugari planteatzen ditu, zeren berrikuspena ezin bait da entziklopedi jakintza osora hedatu. Gilbert Harman-ek zioenez, gizabanakoak usteak kontserbatzeko printzipio psikologikoren bat izan behar du. Honek esan nahi du, gizabanakook ahal den uste gehienak mantentzen saiatzen garela, kontrako-adibideak ageri arren.

Esandakoa kontutan hartuz, berrikuspena murrizten ez bada, ezin izango dugu usteen berrikuspena logikoki tratatu. Baina, berrikuspena murrizten badugu, entziklopedi jakintzan, noizbehinka, kontraesanak agertuko dira. Noski, kontraesanekin sistema logikoek ezin dute funtzionatu.

---

### **Ondorioak**

---

Lan honetan zehar esandakoa kontutan harturik, ez da posible hizkuntza naturaleen perpausak interpretatzea, perpausak agertzen diren testuinguruak kontutan hartu gabe.

Hau dela eta, logikak (logika klasikoak behintzat), berez, ezin du hizkuntza naturaleko funtzionamendua argitu; beraz, gure ustez, biraketa linguistikoaren asmoa betezinatzen jo dezakegu. Horrela bada, paradigma honetatik planteatzen diren hizkuntz teoria guztiak porrot egingo dute. Beraz, biraketa linguistikoak bukatutzat jo denez gero, biraketa berri bat, biraketa pragmatikoa alegia, proposatu behar da.

Dena dela, pragmatika arlotik agertu den pertinentzi teoriak, logika klasikoari paper garrantzitsua gorde dio. Berriro, aztertu dugunez, bai sistema logikoan bai mekanismo psikologikoan arazo ugari sortu dira. Orduan, galdetu behar duguna hau da: zein da hizkuntz filosofian logikak betetzen duen funtzioa?

Bestaldetik, seguraski, pragmatika oraindik ez dago prest arrakasta filosofikoa izateko. Aurrerantzean daukagun lana, pragmatika antolatzea da biraketa pragmatikoak biraketa linguistikoan irabazlea suerta dezan.

---

## Bibliografía

---

AYER, A.J.; *El positivismo lógico*. FCE, Madril, 1981.

CHERNIAK, C.; *Minimal Rationality*. MIT Press. Cambridge, 1986.

GRICE, H.P.; *Logic and Conversation*, 1967, Berrargitaratuta Grice-n (1989)

GRICE, H.P.; *Studies in the Way of Words*. Harvard Univ. Press, Cambirge, 1989.

HARMAN, g.; "Logic and Reasoning", *Synthese* 60, 1984.

KARTTUNEN, L.; "Presuppositions of Compound Sentences", *Linguistic Inquiry* IV. Udaberria, 1973.

KEMPSON, R.; *Presupposition and the delimitation of semantics*, Cambridge Univ. Press., Cambridge, 1975.

LEVINSON, S., *Pragmatics*, Cambridge Univ. Press., Cambridge, 1983.

SPERBER, D. & Wilson, D., *Relevance; Communication and Cognition*, Balckwell, Oxford, 1986.

VALDES VILLANUEVA, L. Ml. (ed.); *La búsqueda del significado*. Techos. Madril, 1991.

WITTGENSTEIN, L.; *Tractatus Logico-Philosophicus*, Alianza Universidad, Madril, 1987.